**Zuzendaritza /** Dirección: Jordi Purtí Ollé
**Zuzendari musikala /** Dirección musical: David Costa

**Ikuskizun honek hiri-dantzaren unibertsoa familian ezagutzera gonbidatzen zaitu. Hip hop-a, breakdance-a, musika eta jolasa uztartuz, gazteenek erritmoa, mugimendua eta sormena esploratzeko esperientzia parte-hartzailea eskaintzen du. Ez galdu hiri-kulturaren energiaz gozatzeko, ikasteko eta haren erritmoan murgiltzeko aukera!**

Este espectáculo te invita a descubrir el universo de la danza urbana en familia. A través del hip hop, el breakdance, la música y el juego, propone una experiencia participativa en la que los más jóvenes podrán explorar el ritmo, el movimiento y la creatividad. ¡No te pierdas esta oportunidad de disfrutar, aprender y dejarte llevar por la energía de la cultura urbana!

**URRIA** OCTUBRE
**ASTELEHENA** LUNES **12**

**ANTZERKIA** TEATRO

**20:00 / 18€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**120 MIN**

**GAZTELANIAZ** CASTELLANO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA




## MIHURA. EL ÚLTIMO COMEDIÓGRAFO

### Nave 10 Matadero & Entrecajas

**Egilea /** Autor: Adrián Perea
**Zuzendaritza /** Dirección: Beatriz Jaén

**Gerra Zibilaren hasieraren 90. urteurrena gogora ekartzen duen antzezlan-saila abiatzen da muntaia honekin. Lanak Miguel Mihuraren bizitza eta obra errepasatzen ditu, XX. mendeko Espainiako antzerkiaren figura nagusietako batenak. Bere biografian oinarritutako komedia baten bidez, ikuskizunak bizitzako estropezuak bere sormen-unibertsoaren parte bihurtu zituen egilearen erretratua egiten du. *Tres sombreros de copa* obraren sortzaileari eta komediaren historian arrastoa uzten jarraitzen duen ondareari egindako omenaldia da.**

Con este montaje, se inicia una serie de obras que rememora el 90.º aniversario del comienzo de la Guerra Civil. La obra recorre la vida y la obra de Miguel Mihura, una de las grandes figuras del teatro español del siglo XX. A través de una comedia inspirada en su propia biografía, el espectáculo retrata a un autor que convirtió los tropiezos en parte de su universo creativo. Un homenaje al creador de *Tres sombreros de copa* y a un legado que sigue marcando la historia de la comedia.

**ANTZERKIA** TEATRO

# 15 URRIA OCTUBRE OSTEGUNA JUEVES

## 20:00 / 15 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**80 MIN**

**GAZTELANIAZ** CASTELLANO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA




# CANTANDO BAJO LAS BALAS

## Luna hiena

**Zuzendaria** / Dirección: Asier Andueza
**Aktorea** / Actriz: Ane Gabarain
**DJ:** Marc Servera

**Ane Gabarain Millán Astray Legioaren sortzailearen azalean jartzen da horren historia kontatzeko eta kantatzeko: leloen, gerra-zaurien eta aberriaren ikuspegi muturreko baten artean. Ironiaz beteriko erretratu honek militarismoaren, boterearen eta adimenaren arteko gatazkaren ikur bihurtutako pertsonaia bat erakusten du. Salamancako Unibertsitatean Unamunorekin izandako talka historikoari begirada probokatzailea eskaintzen dion proposamena.**

La gran Ane Gabarain da vida a Millán Astray, fundador de la Legión, sube al escenario para contar y cantar su propia historia entre consignas, heridas de guerra y una visión extrema de la patria. Un retrato cargado de ironía sobre un personaje convertido en símbolo del enfrentamiento entre militarismo, poder e inteligencia. Una mirada provocadora a aquel histórico choque con Unamuno en la Universidad de Salamanca.

**ANTZERKIA** TEATRO

# 16 URRIA OCTUBRE OSTIRALA VIERNES

## 20:00 / 10 €

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**90 MIN**

**GAZTELANIAZ** CASTELLANO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# LAGUNAS Y NIEBLA

## LaJoven

**Egilea** / Autor: Paco Gámez
**Zuzendaria** / Dirección: José Luis Arellano García

**Nolakoa izango zen zure bizitza 1936an 18 urte bete izan bazenitu? Obra honek memoria, nortasuna eta iraganak belaunaldi berriengan uzten dituen arrastoak ditu ardatz. Begirada gazte eta hurbil baten bidez, isiluneek eta absentziek markatutako familia-historia bati aurre egitean sortzen diren galderak aztertzen ditu. Garenaz eta geure memoria nola eraikitzen dugun hausnartzeko bidaia eszenikoa.**

¿Cómo hubiera sido tu vida si hubieras cumplido 18 años en 1936? Esta obra una historia sobre la memoria, la identidad y las huellas que deja el pasado en las nuevas generaciones. A través de una mirada joven y cercana, explora las preguntas que surgen al enfrentarse a una historia familiar marcada por silencios y ausencias. Un viaje escénico para reflexionar sobre quiénes somos y cómo construimos nuestra propia memoria.

**URRIA** OCTUBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **17**

**20:00 / 15€**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**75 MIN**
**GAZTELANIAZ** CASTELLANO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## YO SOLO QUIERO IRME A FRANCIA

**Egile eta zuzendaria** / Autoría y dirección: Elisabeth Larena
**Aktoreak** / Elenco: María Galiana, Nieve de Medina, Anna Mayo, María Roja

**Pilaren beilaldian, bi emakumek sekretuz, nortasun gurutzatuz eta ustekabeko loturez beteriko familia-historia bat ezagutuko dute. Gerraostean girotutako komedia garratz honek memoria, abandonua eta belaunaldien arteko herentzia emozionala ditu ardatz. Umorea eta magia uztartzen dituen obra da, askatasunaz eta geure lekua aurkitzeko beharraz hitz egiten duena.**

Durante el velatorio de Pilar, dos mujeres descubren una historia familiar llena de secretos, identidades cruzadas y vínculos inesperados. Esta comedia amarga ambientada en la postguerra aborda la memoria, el abandono y la herencia emocional entre generaciones. Una obra donde el humor y la magia se mezclan para hablar de la libertad y de la necesidad de encontrar nuestro lugar.

**URRIA** OCTUBRE
**IGANDEA** DOMINGO **18**

**18:00 / 10€**

**HAURRAK** INFANTIL

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**55 MIN / >7 URTE** AÑOS
**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## IZEBA TXIRRITA

### Zelako Kultur Ideiak

**Zuzendaria** / Dirección: Olatz Gorrotxategi
**Aktoreak** / Elenco: Miren Gojenola, Irene Hernando, Gontzal Royuela

**Etxe-aldaketa baten erdian, zoriak bi nerabe eta haien izeba zaharrena familia-etxe zaharrean elkartuko ditu. Kutxa bakoitza ireki ahala, izebaren bizitzarekin eta ezagutzen ez zuten garai batekin, Gerra Zibilarekin, lotutako sekretuz eta istorioz beteriko altxorrak aurkituko dituzte. Hasieran gazteek ez diote arreta handirik jarriko, baina pixkanaka iraganeko istorio horiek oraindik bizirik daudela ikusiko dute, eta memoria kolektiboaren ariketa batean murgilduko dira.**

En medio de una mudanza, el azar juntará a dos adolescentes y a su tía mayor en la vieja casa familiar. Descubrirán caja por caja, tesoros llenos de secretos relacionados con la vida de su tía y anécdotas de una época que no conocían, la Guerra Civil. Los/as adolescentes al principio no le harán mucho caso, pero poco a poco irán viendo cómo esa historias del pasado siguen vivas y se adentrarán en un ejercicio de memoria colectiva.

ANTZERKIA TEATRO

# 22 URRIA OCTUBRE OSTEGUNA JUEVES

## 20:00 / 12 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# SIDARI

## Xake Produkzioak

**Egilea** / Autor: Kepa Errasti
**Zuzendaria** / Dirección: Getari Etxegarai

**Jonek eta Jokinek, hogeita hamar urte inguruko bi gaztek, Europan zeharreko bidaia bati ekiten diote euren zortzigarren urteurrena ospatzeko, baina harremanari buruzko zalantzak ere bidelagun izango dituzte. Ibilbidean zehar, azaldu ezinezko esperientzia baterako atea irekiko dien adineko bikote bat ezagutuko dute.**

Jone y Jokin, dos jóvenes en la treintena, emprenden un viaje por Europa para celebrar su octavo aniversario, pero las dudas sobre su relación les acompañan en el camino. Durante el trayecto conocerán a una pareja de ancianos que les abrirá la puerta a una experiencia difícil de explicar. Acercaos a una historia sobre el amor, el paso del tiempo y las decisiones que marcan nuestro futuro.

ANTZERKIA TEATRO

# 23 URRIA OCTUBRE OSTIRALA VIERNES

## 20:00 / 8 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**50 MIN**

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# ADRIENE BERGSON-JOHNSON

## Itzuli Konpainia

**Testua eta aktorea** / Texto e interpretación: Maryse Urruty

**Texaseko npresaburu bat Euskal kultura "salbatzeko" prest iritsiko da, mundu mailako arrakastarako bere formula ezin hobearekin. Coaching kolektiboko masterclass zoro honetan, ispilura begiratzera eta gure ohiturak eta ziurtasunak zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu. Proposamen lotsagabea, umorez eta ironiaz betea, XXI. mendean euskalduna izateak zer esan nahi duen aztertzeko.**

Un magnate texano llega dispuesto a "salvar" la cultura vasca con su fórmula infalible de éxito mundial. En una delirante masterclass de coaching colectivo, nos invita a mirarnos al espejo y cuestionar nuestras costumbres y certezas. Una propuesta irreverente, llena de humor e ironía, para descubrir qué significa ser vasco/a en el siglo XXI.

**URRIA** OCTUBRE
**LARUNBATA** SÁBADO
# 24

## 20:00 / 8€

DANTZA
DANZA

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**70 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA




# NO

## La Venidera

**Irene Tenak eta Albert Hernandezek beren unibertso pertsonalenean murgiltzen gaituzte, eta galdetzen digute zer diren eta zerk definitu duen beren bidea azken urteotan. Dantza flamenkoaren ikuspegi bat, 90eko hamarkadaren amaieran jaiotako sortzaile gazte batzuen begietatik, Espainiako eta Flandesko dantzaren marjinak zabaltzearekin liluratuta, beti eboluzio etengabean eta mundu aldakor eta nahasi batekin kontaktuan.**

Irene Tena y Albert Hernández nos sumergen en su universo más personal donde se preguntan quiénes son y qué ha sido lo que ha definido su camino en los últimos años. Una visión de la danza flamenca a través de los ojos de unos jóvenes creadores nacidos a finales de los años 90 y fascinados por ampliar los márgenes de lo que es la danza española y flamenca, siempre en constante evolución y contacto con un mundo cambiante y convulso.

**URRIA** OCTUBRE
**IGANDEA** DOMINGO
# 25

## 18:00 / 8€

HAURRAK
INFANTIL

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**50 MIN / >7 URTE** AÑOS

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# TRETATXU

## Anita Maravillas

**Lan honek goseak eta bidegabekeriak markatutako haurtzaroaren ondoren bere herriko bidelapurrik miretsiena bihurtzen den mutiko bihurri baten istorioa gerturatuko digu. Txotxongilo-antzezlan honek lapurreta ausartak, ihes ikusgarriak eta abentura zirraragarriak uztartzen ditu, umorea, hunkidura eta samurtasuna konpainiaren berezko estetika zainduarekin eta sentiberatasunarekin bat eginez.**

Esta obra cuenta la historia de un niño travieso que, tras una infancia marcada por el hambre y la injusticia, se convierte en el bandolero más admirado de su tierra. Entre robos a los poderosos, huidas imposibles y emocionantes aventuras, este delicado espectáculo de títeres combina humor, emoción y ternura con la cuidada estética y la sensibilidad que distinguen a la compañía.

# 17 URRIA OCTUBRE LARUNBATA SÁBADO

**19:00**

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**GONBIDAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA WWW.GETXO-KULTURA.EUS/AGENDA WEBGUNEAN KONTSULTATU AHAL IZANGO DA**
LA INFORMACIÓN RELATIVA A LAS INVITACIONES ESTARÁ DISPONIBLE EN WWW.GETXO-KULTURA.EUS/AGENDA



## ALGORTA-UPPSALA: ABESTUZ BATU

### Regionkören Uppsala Län
### Kimetz Abesbatza

**Zuzendariak** / Directores: Erik Hellerstedt, Inge Conde

**Algorta-Uppsala: Abestuz Batu proiektua Getxoko Kimetz abesbatzak eta Suediako Regionkören Uppsala Län abesbatzak sustatutako kultura- eta musika-trukea da. Proiektuaren baitan, euskal eta suediar ahozko tradizioko errepertorioa uztartzen duten kontzertuak antolatzen dira, eta oraingo honetan Kimetz izango da Ipar Europako abesbatzaren anfitrioia.**

El proyecto Algorta-Uppsala: Abestuz Batu es un intercambio cultural y musical impulsado por la coral getxotarra Kimetz y la formación sueca Regionkören Uppsala Län. Este proyecto incluye la celebración de conciertos conjuntos donde se fusiona el repertorio vocal tradicional vasco y el sueco y, en esta ocasión, Kimetz ejercerá de anfitriona de la agrupación nórdica.

# 45. ASTE KORALA
## 45.ª SEMANA CORAL

**29** **URRIA** OCTUBRE **> 1** **AZAROA** NOVIEMBRE

**20:00 / 5 €**

**BONUA** ABONO: **12 €**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



**Aurtengo edizioan, nazioarteko hiru abesbatza ospetsu izango dira Muxikebarrin, egungo panorama koralaren aniztasuna eta bikaintasuna erakutsiz. Alemaniatik etorriko den Ensemble Vocapella Limburg gizonezkoen talde entzutetsuak erromantizismoko eta egungo musika koraleko obra esanguratsuenetan oinarritutako programa eskainiko du. Esloveniako Chamber Choir Ipavskak, berriz, musika sakratua, Esloveniako herri-musika eta gaur egungo sorkuntza korala uztartzen dituen errepertorioa interpretatuko du. Zikloa Indonesiako Saint Angela Choir gazte-abesbatzak osatuko du; nazioartean aitortutako talde honek maila tekniko bikaina eta adierazkortasun handiko nahiz estilo askotariko errepertorioa uztartzen ditu.**

En la edición de este año acudirán a Muxikebarri tres destacadas formaciones internacionales que reflejan la diversidad y excelencia del panorama coral contemporáneo. El Ensemble Vocapella Limburg (Alemania), prestigioso conjunto masculino, ofrecerá un programa centrado en la gran literatura coral romántica y contemporánea. Desde Eslovenia, el Chamber Choir Ipavska presentará un repertorio que transita entre la música sacra, el folclore esloveno y la creación coral actual. Completará el ciclo Saint Angela Choir (Indonesia), reconocido coro juvenil de proyección internacional, cuya propuesta combina un alto nivel técnico con un repertorio de gran riqueza expresiva y versatilidad estilística.



**URRIA** OCTUBRE
**OSTEGUNA** JUEVES **29**

### ENSEMBLE VOCAPELLA LIMBURG (Alemania)



**URRIA** OCTUBRE
**OSTIRALA** VIERNES **30**

### CHAMBER CHOIR IPAVSKA (Eslovenia)



**AZAROA** NOVIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **1**

### SAINT ANGELA CHOIR (Indonesia)

ANTZERKIA TEATRO

# 31 URRIA OCTUBRE LARUNBATA SÁBADO

BI PASE / DOS PASES:

## 19:00 EUSKARAZ
## 22:00 GAZTELANIAZ / CASTELLANO

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**60 MIN / >12 URTE** AÑOS

**GONBIDAPENAK ESKURAGARRI RKE ETA MUXIKEBARRIKO TXARTELDEGIAN**
INVITACIONES PARA RECOGER EN RKE Y TAQUILLA DE MUXIKEBARRI



**Gau Beltz Gaztea**

# SUSTO

## XXL bertsioa / Versión XXL

Compañía Maite Guevara

**Ikuskizun murgiltzaile dibertigarri hau Gau Beltz Gaztea parte-hartze prozesuan proposamenik bozkatuena izan zen. Muxikebarrik urriaren 31ko gauean irekiko ditu ateak, izuaren gaztelu bihurtuta. Ausartuko al zara bere alderik ilunena aurkitzen? Jauzika doan esperientzia bat biziko duzu, sustoak bezala. Buu!!**

Este divertido espectáculo inmersivo fue el proyecto más votado en el proceso participativo Gau Beltz Gaztea. Muxikebarri abrirá sus puertas la noche del 31 de octubre convertido en castillo del terror. ¿Te atreves a descubrir su lado más tenebroso? Vivirás una experiencia que va a saltos, como los sustos. Buu!!

**AZAROA** NOVIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES **6**

**20:00 / 8€**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**60 MIN / >12 URTE** AÑOS
**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# INTERVIEW

## Tentazioa

**Interview, Telmo Iruretaren ikuskizuna, *Urez eta hondarrez* film laburrean du abiapuntua. Bertan, aktoreak garun-paralisiarekin bizi izan duen esperientzia eta bere bizipenak partekatzen ditu. Hortik abiatuta, zuzeneko elkarrizketa baten bidez, umorea, gertutasuna eta hunkidura uztartuz, bere ibilbidea, bizipenak eta bizitzari begiratzeko duen modu berezia ezagutzeko gonbidapena egiten dio publikoari.**

Interview, de Telmo Irureta, nace del cortometraje *De agua y arena*, en el que el actor comparte su experiencia vital y su convivencia con la parálisis cerebral. A partir de ese relato, el espectáculo propone una entrevista en directo que, con humor, cercanía y emoción, invita a descubrir su trayectoria, sus vivencias y su particular manera de mirar la vida.

**AZAROA** NOVIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **7**

**20:00 / 18€**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**
**70 MIN**
**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# HERENTZIA

## Kulunka Teatro

**Zuzendaritza /** Dirección: Iñaki Rikarte, Rolando San Martín
**Aktoreak /** Elenco: Isidoro Fernández, Aizpea Goenaga, Garbiñe Insausti, Iñaki Rikarte

**Gertaera traumatiko batek bikote baten bizitza hautsi du, eta elkarrekin igaroko duten azken gauari egin beharko diote aurre, oroitzapenen, beldurren eta isiltasunen artean. Thriller egitura duen 'Herentzia' antzezlanak gaueko bidaia kezkagarri batean murgiltzen gaitu, non errealitatea eta irudimena nahastu egiten diren, familiaren eta memoriaren pisua zein beldurrak mundua ikusteko dugun modua nola eraldatzen duen aztertzeko.**

Un acontecimiento traumático ha quebrado la vida de una pareja que afronta su última noche juntos entre recuerdos, miedos y silencios. Con estructura de thriller, 'Herentzia' nos sumerge en un inquietante viaje nocturno donde la realidad y la imaginación se confunden para explorar el peso de la familia, la memoria y la capacidad del miedo para transformar nuestra percepción del mundo.

HAURRAK INFANTIL

8 AZAROA NOVIEMBRE
IGANDEA DOMINGO

18:00 / 6€

ARETOA SALA: EREAGA

85 MIN

DAGOENEKO SALGAI
YA A LA VENTA

SARI BANAKETA ENTREGA DE PREMIOS

11 AZAROA NOVIEMBRE
ASTEAZKENA MIÉRCOLES

19:00

ARETOA SALA: ARRIGUNAGA

GONBIDAPENEZ
CON INVITACIÓN





## JIRAFA
### Thomas Noone Dance

**Ikuskizun poetiko eta bisualki harrigarri honek dantza, txotxongiloak eta bideo-proiekzio murgiltzaileak uztartzen ditu dantzarekiko grin handia baina baldarkeria ere baduen jirafa maitagarri bati bizia emateko. Umorez, samurtasunez eta irudimenez beteriko proposamen honek iraunkortasuna, sormena eta akats egiteko beldurrik gabe mugimenduaz gozatzeko plazera ospatzen ditu.**

Este espectáculo poético y visualmente sorprendente combina danza, títeres y proyecciones inmersivas para dar vida a una entrañable jirafa apasionada por el baile pero a la vez muy torpe, en una propuesta llena de humor, ternura e imaginación que celebra la perseverancia, la creatividad y el placer de disfrutar del movimiento sin miedo a equivocarse.

## AIXE GETXO! 2026 SARIAK

**Urtero bezala, udalak Aixe Getxo! sarien edizio berri bat jarri du abian. Horren bidez, udalerriko kultura-jarduerari urteroko aintzatespena eskaini nahi zaio, eta tokiko eragileen lanari balioa eman, herritarren partehartzea bultzatzearekin batera. Oraingo honetan, sarien 16. edizioa izango da, eta askotariko kategoriak hartuko ditu.**

Como cada año, Getxo pone en marcha una nueva edición de los premios Aixe Getxo!, a través de los cuales se busca ofrecer reconocimiento anual a la actividad cultural en el municipio y poner en valor el trabajo de los diferentes agentes locales, a la vez que impulsar la participación ciudadana. En esta ocasión, tendrá lugar la edición número 16 de estos premios, que abarcan una gran variedad de categorías.

AZAROA NOVIEMBRE **13**
OSTIRALA VIERNES

ANTZERKIA TEATRO

**20:00 / 12€**

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**90 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# EL VENTRÍLOCUO

**Zuzendari eta aktorea** / Dirección e interpretación:
Jaime Figueroa

**Jaime agertokian bakarrik dagoela ematen du, baina pertsonaia eta objektu ugari biziarazteko gai da. Antzezten duenean, izaki askok laguntzen digute eta gauzarik xumeenek ere hitza hartzen dute: paper zati batek, arkakuso-zirku batek edo gospela abesten duen sai arre batek. Umorea, musika eta ilusioa irudimenez beteriko ikuskizun batean uztartzen dira, ventrilokia berrasmatuz ikusleak harritu eta barre eginarazteko.**

Jaime, aparentemente solo sobre el escenario, es capaz de dar vida a una multitud de personajes y objetos. Cuando actúa, una multitud de seres nos acompaña y las cosas, hasta las más insignificantes, toman la palabra: un trozo de papel, un circo de pulgas o un buitre leonado que canta góspel. Humor, música e ilusión se unen en un espectáculo lleno de imaginación que reinventa este arte para sorprender y hacernos reír.

AZAROA NOVIEMBRE **14**
LARUNBATA SÁBADO

DANTZA DANZA

**20:00 / 20€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**65 MIN**

**TESTURIK GABE** SIN TEXTO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# A.I. (AMALUR INDARRA)

Lucía Lacarra Ballet

**Adimen Artifizialak menderatutako etorkizun distopiko batean, Amalur agertzen da Lurretik eta bere emozioetatik urrundu den gizateria esnatzeko. Ikuskizun honek dantza, laser argiak eta teknologia berriak uztartzen ditu, gizakiaren eta artifizialaren arteko harremana aztertzen duen proposamen bisual batean, nortasunaz, kontzientziaz eta teknologiak gure bizitzetan duen zereginaz gogoeta egitera gonbidatuz.**

En un futuro distópico dominado por la Inteligencia Artificial, Amalur surge para despertar a una humanidad desconectada de la Tierra y de sus emociones. Este espectáculo combina danza, luces láser y nuevas tecnologías en una propuesta visual que explora la relación entre lo humano y lo artificial, invitando a reflexionar sobre la identidad, la conciencia y el papel de la tecnología en nuestras vidas.

HAURRAK INFANTIL

# 15 AZAROA NOVIEMBRE IGANDEA DOMINGO

## 18:00 / 8 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**55 MIN / >3 URTE** AÑOS

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# BIDUTZI

## Benetan Be

**Inauterietako gauean, Bidutzi, munstro txiki bat, kaiola batean harrapatuta gelditzen da debeku misteriotsu bati aurre egin ondoren. Ainararen laguntzarekin, ehiztaria itzuli baino lehen ihes egiteko modua aurkitu beharko du, mozorroz, umorez eta emozioz beteriko familia osoarentzako abentura dibertigarri batean, beldurra barre bihurtu eta adiskidetasunaren balioa ospatzen duena.**

En la noche de Carnaval, Bidutzi, un pequeño monstruo, queda atrapado en una jaula tras desafiar una misteriosa prohibición. Con la ayuda de Ainara, deberá encontrar la forma de escapar antes de que regrese el cazador en una divertida aventura familiar que, entre disfraces, humor y emoción, transforma el miedo en risas y celebra el valor de la amistad.

ANTZERKIA TEATRO

# 20 AZAROA NOVIEMBRE OSTIRALA VIERNES

## 20:00 / 15 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# PROMESARIK TXIKIENA

## Infinitu drama

**Aktore sortzaileak /** Elenco creador: Intza Alkain, Maite Aizpurua, Maiana Etxeberri, Ane Garcia
**Zuzendaritza /** Dirección: Maite Aizpurua, Matxalen de Pedro

**Lau lagun agertokian elkartzen dira lotzen dituzten harremanak, elkarri egindako promesak eta baita etsipenak ere ospatzeko. Umorea, emozioa eta konplizitatea uztartzen dituen proposamen honek adiskidetasunaz, maitasun-loturez eta gure harremanei eusten dieten keinu txikien balioaz hausnartzera gonbidatzen du publikoa.Zein da lagun bati egin diezaiokegun promesarik txikiena?**

Cuatro amigas se reúnen sobre el escenario para celebrar los vínculos que las unen, las promesas compartidas y también las decepciones. Entre humor, emoción y complicidad, esta propuesta invita al público a participar en un juego escénico que reflexiona sobre la amistad, los afectos y el valor de los pequeños gestos que sostienen nuestras relaciones.

AZAROA NOVIEMBRE **21**
**LARUNBATA** SÁBADO

**20:00 / 10€**

MUSIKA MÚSICA

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA

AZAROA NOVIEMBRE **21**
**LARUNBATA** SÁBADO

**19:00 / 3€**

ANTZERKIA TEATRO

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**123 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## Iparra Galdu Gabe
## NIKO ETXARTI OMENALDIA
### Niko Etxart & Hapa-Hapa Taldea

**Iparra Galdu Gabe egitasmoaren 25. urteurrena dela eta, Getxok omenaldia egingo dio Niko Etxarti, euskal musikaren ezinbesteko erreferenteetako bati. Berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea izango du ardatz kontzertu berezi honek, haren errepertorioa, Zuberoako kantu tradizionalak eta gonbidatutako artistak uztartuz, Iparraldeko kulturaren, euskararen eta musika-ondarearen ospakizun batean.**

Con motivo del 25.º aniversario de Iparra Galdu Gabe, Getxo rinde homenaje a Niko Etxart, una de las figuras esenciales de la música vasca. Más de cincuenta años de trayectoria se reunirán en un concierto único que recorrerá su repertorio junto a canciones tradicionales zuberotarras y la participación de artistas invitados en una celebración de la cultura, el euskera y el legado musical de Iparralde.



## LA IMPORTANCIA DE LLAMARSE ERNESTO
### Compañía Joven Sin Remilgos

**Sin Remilgos konpainiak Oscar Wilderen klasikoaren bere bertsioa aurkezten du: istorio argia, dibertigarria eta gaurkotasun handikoa. Itxurek dena baldintzatzen duten mundu batean, bi gizonek begi-bistan dagoena baino gehiago ezkutatzen dute, gizartearen maskarak ironiaz agerian uzten dituen komedia bikain batean. Umorearen azpian, galdera sotil baina guztiz gaurkoa ageri da: benetan geure burua al gara, ala besteek izatea behar dutena?**

La compañía Sin Remilgos presenta su versión del clásico de Oscar Wilde, una historia ingeniosa, divertida y sorprendentemente actual. En un mundo donde las apariencias lo condicionan todo, dos hombres esconden más de lo que revelan en una brillante comedia que, con ironía, desnuda las máscaras de la sociedad y plantea una pregunta tan sutil como vigente: ¿somos quienes decimos ser o quienes los demás necesitan que seamos?

HAURRAK INFANTIL

# 22 AZAROA NOVIEMBRE IGANDEA DOMINGO

**BI PASE /** DOS PASES:

**16:30 - 18:30 / 10 €**

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**35 MIN / >3 URTE** AÑOS

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## MAMUKA

### Elirale-Pantxika Telleria konpainia

***Mamuka*** **ikuskizunak haurrei naturan inspiratutako izaki harrigarriak bihurtzen diren bi dantzariren mundu magikoa ezagutzera gonbidatzen die. Agertu eta desagertzeko jolasekin, umore handiz eta Vivaldiren Lau urtaroak obraren musikarekin, ikuskizunak irudimena, mugimendua eta inguruko munduaren edertasuna ospatzen ditu.**

*Mamuka* invita al público infantil a descubrir un mundo mágico donde dos bailarines se transforman en sorprendentes criaturas inspiradas en la naturaleza. Entre juegos de aparecer y desaparecer, mucho humor y la música de Las cuatro estaciones de Vivaldi, el espectáculo celebra la imaginación, el movimiento y la belleza del mundo que nos rodea.

MUSIKA MÚSICA

# 27 AZAROA NOVIEMBRE OSTIRALA VIERNES

**20:00 / 8 €**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**60 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## ANONIMAK

**Garbiñe García, Goizalde Gómez, Irina Álvarez, Itxaso Gómez, María Lazkano, María Rivero**

**Virginia Woolfen hitzetan («Ausartuko nintzateke esatera izenik gabe hainbeste poema idatzi zituen Anonimo hura emakumea izan zela askotan»), Anonimak Balmasedako sei emakumek osatutako musika- eta arte-kolektiboa da. Historian zehar isilarazitako emakume askoren talentua eta ahotsa aldarrikatzen ditu, emakumeen sorkuntza, memoria partekatua eta musikak adierazpenerako zein eraldaketarako tresna gisa duen indarra ospatzen dituen ikuskizun baten bidez.**

Inspirado en las palabras de Virginia Woolf («Me atrevería a aventurar que Anónimo, que tantos poemas escribió sin firmarlos, era a menudo una mujer»), Anonimak es un colectivo artístico y musical formado por seis mujeres de Balmaseda que reivindica el talento y la voz de tantas mujeres silenciadas a lo largo de la historia a través de un espectáculo que celebra la creación femenina, la memoria compartida y el poder de la música como herramienta de expresión y transformación.

**AZAROA** NOVIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **28**

**20:00 / 12 €**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**70 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# UN SIGLO DE ABISMOS

## Bramant Teatre

**Familia bereko emakumeek protagonizatutako sei bakarrizketaren bidez, 'Un siglo de abismos' antzezlanak ehun urteko memoria zeharkatzen du genero-ikuspegitik. Gizarte bidezkoago baten alde borrokatu zirenen ahotsak berreskuratzen ditu, eta errepresioak eta isiltasunak belaunaldiz belaunaldi utzitako arrastoari buruz hausnartzen du.**

A través de seis monólogos protagonizados por mujeres de una misma familia, 'Un siglo de abismos' recorre cien años de memoria desde una perspectiva de género. La obra recupera las voces de quienes lucharon por una sociedad más justa y reflexiona sobre la huella que la represión y el silencio han dejado de generación en generación.

**AZAROA** NOVIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **29**

**18:00 / 10 €**

**HAURRAK** INFANTIL

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**70 MIN**

**TESTURIK GABE** SIN TEXTO

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA




# FLY ME TO THE MOON

## Leandre Clown

***Fly Me to the Moon*** **ikuskizunak bi pailazo laguntzen ditu ilargirantz egindako bidaia ezinezko bezain hunkigarri batean. Ametsaren eta errealitatearen artean, hitzik gabeko umorea, poesia bisuala eta irudimena batzen dira adin guztietako ikusleentzako ikuskizun honetan, mundua haurren begiekin ikustera gonbidatuz. Barruan haur bat daramaten guztientzat.**

*Fly Me to the Moon* acompaña a dos payasos en un viaje tan imposible como entrañable hacia la luna. Entre el sueño y la realidad, el humor sin palabras, la poesía visual y la imaginación se unen en un espectáculo para todos los públicos que invita a mirar el mundo con los ojos de la infancia. Para todas personas que llevan un/a niño/a dentro.

MUSIKA MÚSICA

4 ABENDUA DICIEMBRE
OSTIRALA VIERNES

21:00 / 8 €

ARETOA SALA: ARRIGUNAGA

**ZUTIK** DE PIE
**75 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# ARENE 6

## Sutan

**Getxoko talde gazte honek punk Oi!, hardcore, rock eta metal erritmoak uztartzen ditu, nortasun handiko eta indarrez beteriko soinuarekin. Kontzertu honetan Sutan aurkeztuko du, taldearen heldutasuna eta bilakaera islatzen dituen bere lan diskografiko berria. Zuzeneko emanaldietan intentsitatea, energia eta publikoarekiko etengabeko lotura dira nagusi. Letra konprometituen eta eszenaratze indartsuaren bidez, Euskal Herriko musikagintzako proposamen nabarmenenetako bat bihurtu da.**

Esta joven banda getxotarra fusiona ritmos punk Oi!, hardcore, rock y metal con un sonido potente y lleno de personalidad. En este concierto presentará Sutan, su nuevo trabajo discográfico, un álbum que refleja la madurez y la evolución del grupo. Sus directos destacan por la intensidad, la energía y una conexión constante con el público. Con letras comprometidas y una puesta en escena arrolladora, se han consolidado como una de las propuestas más destacadas de la escena vasca.

ANTZERKIA TEATRO

5 ABENDUA DICIEMBRE
LARUNBATA SÁBADO

20:00 / 15 €

ARETOA SALA: EREAGA

**100 MIN**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



# TRES NOCHES EN ÍTACA

**Zuzendaria** / Dirección: María Goiricelaya
**Elenko** / Aktoreak: Cecilia Freire, Marta Nieto, Amaia Lizarralde

**Alberto Conejeroren lan berriak hiru ahizpa elkartzen ditu itsasoaren aurrean dagoen familia-etxean, ama, Alicia —greziera klasikoko irakasle sutsua— hil ondoren. Doluzko hiru gauetan, sekretuak, zauriak eta oroitzapenak azaleratuko dira, amaren absentziari ez ezik, beren mamuei ere aurre egitera eramanez. Elegiatik itxaropenera igarotzen den tragicomedia argitsua da, familiaz, behin eta berriz berriz jaiotzeko eskubideaz eta Humanitateen zein irudimenaren balioaz gogoeta egiten duena.**

La nueva obra de Alberto Conejero, reúne a tres hermanas en la casa familiar frente al mar tras la muerte de su madre, Alicia, una apasionada profesora de griego clásico. Durante tres noches de duelo, afloran secretos, heridas y recuerdos que las enfrentarán tanto a la ausencia materna como a sus propios fantasmas, en una tragicomedia luminosa que transita de la elegía a la esperanza y reflexiona sobre la familia, el derecho a renacer y el valor de las Humanidades y la imaginación.

**ABENDUA** DICIEMBRE **IGANDEA** DOMINGO **6**

**HAURRAK** INFANTIL

**18:00 / 8€**

**ARETOA** SALA: **AREETA**
**60 MIN / >4 URTE** AÑOS
**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## SESAMO, IREKI ZAITEZ!

### Caleidoscopio Teatro

**Ikusizko antzerki-proposamen honek haur eta familia osoa liburuen magiaz gozatzera gonbidatzen du. Irudien, objektuen, musikaren eta mugimenduaren bidez, liburu bakoitza fantasiaren unibertsorako ate bihurtzen da. Ikuskizun poetiko eta parte-hartzaile honek irudimena pizten du, irakurzaletasuna sustatzen du eta ipuinen ahalmena ospatzen du, adin guztietako ikusleak hunkitu eta harritzeko.**

Esta propuesta de teatro visual invita al público infantil y familiar a descubrir la magia de los libros. A través de imágenes, objetos, música y movimiento, cada libro se convierte en la puerta de entrada a un universo de fantasía. Un espectáculo poético y participativo que despierta la imaginación, fomenta el gusto por la lectura y celebra el poder de los cuentos para emocionar y sorprender a espectadores de todas las edades.

**ABENDUA** DICIEMBRE **ASTELEHENA** LUNES **7**

**MUSIKA** MÚSICA

**20:00 / 6€**

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**
**ZUTIK** DE PIE

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## VULCANIZADAS

Nerea Arrieta Ibañez, Jone Ibarretxe de la Cal, Virginia Fdez. Reviriego, Maddi Txurruka Duralde, Elsa García Lizundia

**2024an lehen diskoa aurkeztu ondoren, Bizkaiko emakumez osatutako taldeak bigarren lana argitaratuko du udazken honetan. Soul, blues, rhythm & blues eta funk doinuak uztartzen dituen proposamenarekin, boskotea euskal musikaren eszenako talde bereezienetako bat bihurtu da. Lehen diskoa barrearen eta negarraren artean mugitzen bazen, lan berriko kantuak samurtasunaren eta amorruaren artean dabiltza; Muxikebarrin zuzenean aurkeztuko duten errepertorioa.**

Tras presentar su primer disco en 2024, la banda vizcaína femenina prepara el lanzamiento de su segundo álbum este otoño. Con una propuesta que fusiona soul, blues, rhythm & blues y funk, el quinteto se ha consolidado como una de las formaciones más personales de la escena vasca. Si su debut transitaba entre la risa y el llanto, las nuevas canciones se mueven entre la ternura y la rabia, un repertorio que presentarán en directo en Muxikebarri.

HAURRAK INFANTIL

# 8 ABENDUA DICIEMBRE ASTEARTEA MARTES

## 18:00 / 6€

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**60 MIN / >2-8 URTE** AÑOS

**EUSKARAZ**

**DAGOENEKO SALGAI**
YA A LA VENTA



## OROITZAPEN EDERRAK

Motx Pailazoa

**Motx pailazoak oroitzapenen bidezko bidaia hunkigarria egingo du Martintxo lagun handiaren oroimena bizirik mantentzeko. Elkarrekin bizitako abenturak eta beti batu dituen lotura berpiztuko ditu, haren gabeziaren ondoren ere. Haren omenez haritz bat landatu zutenetik hiru urte igaro direnean, umorez, hunkiduraz eta samurtasunez beteriko istorio berri bat sortuko da, familia osoa adiskidetasuna eta oroitzapenen balioa ospatzera gonbidatzen duena.**

